

494/2019 EBAZPENA, martxoaren 7koa, BILBAO-BASURTO ESiko zuzendari gerentearena. Honen bidez, deialdia egiten da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko BILBAO-BASURTO ESlan Areilzako Oftalmologiako operazio-geletako, IGKU oftalmologikoko, Padre Arrupeko operazio-gela anbulatorioko gainbegirale lanpostua izendapen askez betetzeko.

BILBAO-BASURTO ESlan hutsik dago Areilzako Oftalmologiako operazio-geletako, IGKU oftalmologikoko, Padre Arrupeko operazio-gela anbulatorioko Gainbegiraletzako Antolamendu Unitateko gainbegirale lanpostua. Hori dela-eta, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluko hirugarren arau komunean, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denaren arabera, Gerentzia Zuzendaritza honek erabaki du lanpostu hori izendapen askez betetzeko deialdi publikoa iragartzea, oinarri hauek jarrita:

OINARRIAK:

1.- Parte hartzeko betekizunak.

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute betekizun hauek betetzen dituztela egiaztatzen dutenek:

- a).- Osakidetzako edozein zerbitzu-erakundetan, lotura finkoko langilea izatea (estatutupekoa, funtzionarioa edo lan-kontratuduna) eta plaza jabetzan edukitzea B1 lanbide-taldean.
- b).- B1 lanbide-taldeko titulazioa edukitzea.
- c).- Hiru urteko lan-esperientzia izatea, gutxienez, B1 lanbide-taldean.
- d) Uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta Osakidetzako Euskara Planean ezarritako gainerako betebeharrak.

2.- Aintzat hartuko diren merituak:

- Esperientzia eta/edo prestakuntza Osasun Kudeaketan.
- Esperientzia edota prestakuntza taldeak antolatu eta kudeatzen, prozesukako kudeaketa-eredu bidez.
- Prestakuntza eta ezagutzak arlo hauetan: kudeaketa-tresnak, kalitate-ereduak, prozesuak, segurtasun klinikoa, etengabeko hobekuntza, ISO eta KAE.
- Ofimatikako ezagutzak: Word, Excel, Access, Power Point.

Horrez gain, baloratuko dira lanpostu hau betetzeko interesgarritzat jotzen diren eta balioa eransten duten merituak.

3.- Euskararen ezagutza:

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan Euskararen erabilera normalizatzeko martxoaren 18ko

67/2003 Dekretuak eta berau garatzen duten arauak xedatutakoaren arabera egingo da balorazioa.

4.- Eskaerak egiteko epea eta aurkezteko modua.

Interesdunek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko BILBAO-BASURTO ESiko Pertsonaleko Zuzendaritzara bidali behar dituzte eskabideak (Montevideo etorbidea 18, Bilbo, 48013 posta-kodea), 10 egun balioduneko epean, ebazpen honen iragarkia EHAAr argitaratu eta biharamunetik aurrera. Aurkeztu ahal izango dira, halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan ezarritako eran.

Curriculum Vitaeko dokumentazioa honelakoa izan behar da:

- a) NANaren, pasaportearen edo gidabaimenaren fotokopia konpultsatua.
- b) Funtzionario edo estatutupeko langile izendapenaren fotokopia konpultsatua edo, hala badagokio, lan-kontratu finkodun langilea dela egiaztatzen duen agiriarena.
- c) Baldintzak betetzea egiaztatzen duen dokumentazioaren fotokopia konpultsatua.
- d) Baloratu beharreko meritu guztien fotokopia konpultsatua.

CVaren aplikazio informatiko korporatiboan behar bezala baliozkotuta dauden alderdiak ez dira ziurtatu behar izango aurreko paragrafoan ageri den moduan; hala ere, eskatzaileak horren berri eman behar du eskaeran.

5.- Balorazio Batzordea.

Balorazio batzorde bat osatuko da, batzordeburu zuzendari gerentea edo hark eskuordetzen duena izanik, eta hauexek izango dira bertako partaideak: Erizaintzako zuzendaria, Pertsonaleko zuzendaria (idazkari izango dena, ahots eta botoarekin) eta kide bi, izangaiei eskatutako titulazioa izan beharko dutenak (eta, lehentasunez, espezialitatea ere bai).

Izangaien balorazioa egin ostean, eta horretan oinarrituta, proposamena egingo da, dagokion izendapena formalizatzeko. Aurretiaz txostena eginda, Balorazio Batzordeak betetzeke utzi ahalko du lanpostua, hautagaiak eskatutako baldintzak betetzen ez badituzte.

Akta egingo da Batzordea biltzen den bakoitzean. Bertan, aurkeztutako izangaiak zerrendatuko dira, eta lanpostua beraietako bati esleitzeko edo deialdia bete gabe uzteko kontuan hartutako arrazoiak emango dira.

6.- Hautaketa Prozedura.

Ezin izango dira baloratu, inolaz ere, deialdiaren iragarkia EHAAr argitaratzen den egunean eskuratu gabe dauden merezimenduak, ez eta eskaerak aurkezteko epea amaitu aurretik behar bezala alegatu eta egiaztatu ez direnak ere.

7.- Prozedura amaitzeko Ebazpena.

Hemen abiatzen den prozedura amaitzeko (lanpostua esleitzea edo lanpostua hutsik uztea), ebazpena eman behar du Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko BILBAO BASURTO ESiko zuzendari gerenteak. Intranetean eta Osakidetza webgune korporatiboan argitaratuko da. Era berean, iragarki bat argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Izendapen Ebazpenak ondorioak izango ditu Iragarkia EHAAAn argitaratzen denetik, bertan besterik xedatu ezean behintzat.

8.- Ebazpen honen aurkako errekurtsoak.

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen honen Iragarkia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Bilbon, 2019ko martxoaren 7an.

BILBAO-BASURTO ESIKO ZUZENDARI GERENTEA
Eskuordetzaz, BILBAO-BASURTO ESIko Pertsonaleko zuzendaria
(ekainaren 20ko 1556/2017 Ebazpena)



Iz.: AMAYA DE ALLENDE ACHALANDABASO